



Esp. kodea: 2018SMOZ0005
Titularra: IRABAZI ARRASATE

Gaia: MOZIOAREN AURKEZPENA
Hasiera data: 2018/03/23

MOZIOA

Juan Luis Merino Sanabria jaunak, Portavoz del Grupo Municipal IRABAZI-ARRASATE udal taldeko bozeramalea (Ezker Anitza-IU, Equo eta Independientes), mozio hau aurkezten du osoko bilkuran eztabaidatzeko memoria demokratikoaren gaineko legeriari buruz.

JUSTIFIKAZIOA

Gaur egun nabarmena da zer zaila den gainditzea frankismoaren biktima guztiei jarritako oztopoak, oraindik ere hor dirautenak Espainiako legerian. Oztopoen artean daude auzitegi frankisten epaien indarraldia, eragozpenak gerra krimenen arduradunak epaitzeko eta erregimen frankistak eta haren kolaboratzaileek egindakoak gizateriaren aurka, ikerketa historikorik eta judizialik ez egotea, bermatuko dutenak eskubidea egia, justizia eta erreparazioa izateko biktima guztiek, eta orain indarrean dagoen Memoria Historikoaren Legearen muga nabarmenak.

Hala ere, herrialde demokratiko batean behar-beharrezkoa da bermatzea frankismoaren biktima guztien eskubideak, jakiteko egia, edukitzeko justizia eta erreparaziorako, berme guztiekin halakorik ez errepikatzeko, Nazio Batuek onartutako deklarazioen eta arauen arabera. Amnistiaren legeriari buruz, jardun bat ere ez litzateke interpretatu behar arrazoia ematea moduan Espainiako auzitegien erabakiei –bereziki Auzitegi Gorenaren Jurisprudenziari buruz-, zeinak adierazi izan baitu legeak galarazi egiten duela frankismoaren krimenak epaitzea.

Nazioarteko Zuzenbideak, Nuremberg-go printzipioak onartu zirenetik 1947an, debekatzen du gizateriaren aurkako krimenak eta gerra krimenak amnistiatzea, baita ere, 1948ko Konbentzioak, Genozidioari buruz, behartzen du jarraitzea krimen hori kasu guztietan. Geroago, Eskubide Zibil eta Politikoei buruzko Nazioarteko Itunak, 1966an, 15.2 artikuluan,



Esp. kodea: 2018SMOZ0005
Titularra: IRABAZI ARRASATE

Gaia: MOZIOAREN AURKEZPENA
Hasiera data: 2018/03/23

ezarri zuen aurreikuspen berbera. Hortaz, Amnistia Legea, 1977ko urriaren 11koa, e) eta f) ataletan, 2. artikuluan, ez zuten inoiz interpretatu behar auzitegiek gerra krimenen amnistia bat moduan, bai ordea gizateriaren aurkako krimen bat moduan edo genozidio bat moduan, funtzionario publikoek egindakoak, baizik eta agindu horiek bakarrik amnistiatu behar dituzte delituak, baina nazioarteko kontsideratzen ez direnak edo amnistiatu ezin daitezkeenak eta preskribaezinak direnak.

Horregatik guztiagatik, mozio hau aurkezten dugu:

MOZIOA

1. Arrasateko Udalaren osoko bilkurak hertsatuki eskatzen dio Estatuko Gobernuari aldatu dezan Memoria Historikoaren Legea, hau sartuta: Frankismoaren auzitegiek emandako epaien iure deuseztasuna (legez), Errepublikaren legezkotasunaren oposiziogile politikoen aurka eta Errepublikaren defendatzaileen aurka emandakoak; Estatuaren obligazioa hilobiak irekitzeko eta gorpuzkiak identifikatzeko; Estatuaren obligazioa jardun judizialak hasteko gerra delituei buruz edo gizateriaren aurkako delituei buruz, hildako pertsoneri eginak, haien gorpuzkiak daudelarik hilobi horietan.
2. Arrasateko Udalaren osoko bilkurak hertsatuki eskatzen dio Estatuko Gobernuari frankismoaren biktimen lege bat onartzeko, zeinak erregimen frankista kalifikatuko duen legez kanpoko edo legez kontrako –Nazio Batuen Batzar Orokorrak emandako erabakien ildotik-; zeinak errekonozimendu politikoa ematen dien frankismoaren biktimei eta zeinak aitortzen dituen oraindik aitortu ez zaizkien eskubideak eta gizarte prestazioak.
3. Arrasateko Udalaren osoko bilkurak hertsatuki eskatzen dio Estatuko Gobernuari indargabetu ditzan Amnistia Legearen 2. artikuluko e) eta f) atalak, nazioarteko kontsideratutako krimenei buruz, hau da, preskribaezinak eta amnistiatu



Esp. kodea: 2018SMOZ0005
Titularra: IRABAZI ARRASATE

Gaia: MOZIOAREN AURKEZPENA
Hasiera data: 2018/03/23

ezin daitezkeenak. Sartzea paragrafo bat edo tarteki bat zigor kodean, non argituko den nazioarteko zuzenbidean oinarritutakoa, indarrean 1947tik aurrera: ezinezkoa da amnistia aplikatzea nazioartekotzat jotzen diren krimenetan, hau da, preskribaezinak eta amnistiatu ezin daitezkeenak.

Arrasaten, 2018ko martxoaren 23an

Sinatua: